

balaitze

2004ko APIRILA,
120. ZENB. DOHAINIK



San Telmo festetarako apainduta



baleike



Hemen dator Baleike. Jakin dugu irrikaz egon zarela aldizkaria noiz aterako. Baina, zoritxarrez hilabeteko hutsunea egin behar izan dugu, eta martxoko zenbakia

atera gabe gelditu gara. Urola-Kostako Hitzaren sorrerak ordu asko bereganatu dizkigu, eta egitasmo berri horretan buru-belarri murgilduta ibili garenez, hilabetez Baleike ez ateratzea erabaki genuen. Denbora tarte hori pasa da, eta hemen duzu Baleike. Apirilekoa.

Zumaiarrok hainbeste maite dugun hilabetekoa. Santelmoak, normalean apirilean izanda, nola ez dugu ba maiteko!! Kontuak kontu, **apirileko Baleike** esku artean daukazu. Eta denetik dauka, gainera.

Ze berri atalean Zumaiarren arteko bertso txapelketaz hainbat gauza ezagutu ahal izango dituzu. *Trinidadekoak* kutsu politikoarekin datoz oraingoan. **Rafael del Pilarrek** ez ditu oso gustuko politikoak. Gure artean ez dagoen **Arbustaingo garabiaz** liburu eder askoa idatzi berri duenez, aitzakia paregabea



iruditu zaigu *jardunian* aritzeko.

Santelmoak datozela eta, izen bereko kalean dagoen San Telmo txikia berritu duten Idoia Idigorasek eta Rakel Nacentak **restaurazioaren ur haunditan** murgilduko gaituzte. *Olaro zopa* oparoa prestatu dizugu zenbaki honetan, eta betiko lau atalez



gain, beste lau ere baditu oraingoan. **Iñaki Sorazu Pulpo Eskubaloi taldeko presidentea izerdi patsetan** egoten da taldea bide onetik eramateko ahaleginetan. Hainbeste nekerekin, ez da txarra izaten etxera joan eta zerbait irakurtzea. Guk *ze letuan Pedro Alberdiren* ipuin polit bat proposatzen dizuegu. Hauxe, laburrean, apirileko Baleike. Gustukoa izango duzulakoan, maiatzekoa prestatzera goaz, santelmoetan lan handirik ez dugu egingo eta...

HERRI ALDIZKARIA

Juan Belmonte, 29 behea
tel.: 943 86 15 45
faxa: 943 86 17 42
email:
baleike@topagunea.com

Argitaratzailea

BALEIKE KULTUR ELKARTEA

Administrazio batzordea

Esther Etxeberria
Xabier Azkue

Erredakzio batzordea

Ibon Manterola
Eneko Dorronsoro
Itxaso Ibarra

Aitor Manterola
Gurenda Serrano

Koordinatzailea
Aitor Manterola

Kazetariak
Eneko Dorronsoro
Ibon Manterola
Itxaso Ibarra
Aitor Manterola
Gurenda Serrano

Kolaboratzaileak
Miriam Romatet,
Dani Carballo, Belen
Golmaio, Ixiar eta Estitxu
Eizagirre, Karmelo Arroiabe,
Gorka Ormazuri,

Xabier Aizpurua, Ibon
Aizpurua
Izaga Garzia,
Beñat Fernandez de
Arroyabe,
Ihintz Linazisoro, Egoitz
Lizaso, Garikoitz Telleria,
Natur Taldea, Ander
Hormazuri, Juan Luis
Romatet

Diseinua eta maketazioa
Roberto Gutierrez

Hizkuntz zuzenketa
Baleike

Publizitatea
943 86 15 45 tel. (Esther)

Inprimategia

Antza
Inprimategia
(Lasarte-Oria)

Tirada

1.000 ale
Lege gordailua
SS-405/94
ISSN
1136-8594

Baleikek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Argazkilaria:

Eva Franco

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



Zumaiako Udala



**CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA**



kutxa

gizarte ekintza



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**



**GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA**

Iritzi guztiak omen dira errespetagarriak...

ORAINGOAN FILOSOFO bati dagokion istorioarekin nator-kizue. Barkatuko al didate atrebentzia Sokrates , Aristoteles, Platon, Kant eta beste askoren ondorengoek...Askotan erabiltzen dugun esaldi bati buruz hitz egin nahi dut. Zenbat aldiz entzuten ote dugu "iritzi guztiak errespetagarriak dira" esaldia? Bi pertsona edo gehiagoren arteko edozein elkarriketetan ohikoa da hitz horiek entzutea. Oraintxe bertan entzun diot bati. Eta horrelakoetan, beti akordatzen naiz Euskal Filologiako karreran Hizkuntzaren Filosofia irakatsi zigun irakaslearekin. Esaldi horretaz hark zuen iritzia ez zait sekula ahaztuko. Haren ustez, iritziak ez dira errespetagarriak. Pertsonak dira errespetatu beharrekoak. Gogoan dut hori arrazoitzen laguntzeko erabiltzen zuen adibidea: "nik esaten badut neska guztiak bortxatu behar direla, iritzi hori errespetatzekoa al da?". Irakasle haren hitzek liluratu egin ninduten. Eta liluratuta naukate. Pertsonak dira errespetagarriak, ez iritziak. Zenbat eta buelta gehiago eman, gero eta arrazoi handiagoa aurkitzen diot teoria horri. Askotan pentsatzen dut egungo gizartearen alderdi ilunenak badutela zerikusia teoria horrekin. Egu-

neroko bizimodua aztertuz gero, egiten ditugun gauza guztiak aztertuta, zenbatetan baztertzen dugu pertsona bera? Politikako arazoetan (borroka armatuan, presoan auzian, alderdien arteko harremanetan...), kirol jardunetan (kontrarioari irainak, gurasoen arteko liskarrak...), lanean (lankidearenganako errespetu eza, enpresarioek langileari dioten errespeturik eza...), gizartearen (etorkinei egiten diegun harrera, autoan goazela er bait oker egin duen beste gidari bati botatzen dizkiogunak...) ahaztu egiten zaigu albokoa edo ezberdin pentsatzen duena gu bezalako pertsona dela. Hortxe galtzen gabela uste dut. Iritzi guztiak errespetagarriak direla pentsatzen edo pentsarazten ditugun bitartean, pertsona bost axola. Laguna bost axola. Merez du irakasle hark esandakoa gogoratzea: "iritzi guztiak ez dira errespetagarriak. Pertsonak bai".



Aitor Manterola

BALEIKE ALDIZKARIAREN OHARRA

Hilabetekaria izanik, hilero-hilero atera izan dugu Baleike aldizkaria. Dena den, otsailekoaren ondorengoa izan behar zuen martxokoa ezin izan genuen atera. Hutsune horrek azalpenak mereziko dituelakoan idazten ditugu lerro hauek. Urola-Kostako Hitza egunkariaren sorreran jakina da bailarako herri aldizkariak parte hartu dutela. Baleike ere hori izan da, eta orain ere hor dago. Hori dela eta, egunkaria atera aurreko egunetan, eta ondorengoetan buru-belarri aritu gara Hitzari merezi duen adinako bultzada eman nahian. Eta uste baino denbora gehiago kendu digunez, martxoan ezin izan dugu Baleike atera. Horixe izan da martxoan zuekin kale egitearen arrazoa. Barkamenak eskatzea besterik ez zaigu geratzen.



INK-JET ETA LASER KARTUTXOEN ERREGENERAZIO ETA SALMENTA

Tel./Fax: 943 143 102 - Juan Belmonte, 2 bgo - 20750 ZUMAIA



Arantza Aramendi

EGUZKI
G. INMOBILIARIA

Harategi kalea, 15 behea
943 86 22 65 - 609 46 56 37

OPTIKA ZUMAIA



Txomin Agirre kaia, 6

Tel./Faxa: 943-143057

Z U M A I A

Ez eta bai

BEHIN AMAK esandakoa oso gogoan hartu nuen, hauxe esan zidan: "Ezak eta baiak indarra duten bitartean abokatuek ez dute lan faltarik izango!". Eta nik uste egun sekula baino indar gehiago duela orduan amak esandakoak.

Bada konpondu ezina jaió geran mundu honetako edozein bazterretan, halajainkoa! Bush-ek bai Bin Laden-ek ez, Palestinak bai Israelek ez, zuk bai nik ez... Elkar ezin ikusi! Hemen Fernando amezketarraren astoarena...

Tragoa ordaintzeko orduan ere berdin: "Nik ordainduko diat" "Ez, orain neri tokatzen zatek" "Ezetz ba! Nik ordainduko diatela ba!" e.a... Nirekin ez duzue horrelako arazorik izango, nahi baduzue gau osoa jardun tragoak ordaintzen!

Lehen "Gerrari EZ" esan behar zela eta orain Asier Serra-

no-k "Gerrari BAI", hemen earra! Ta orain zer egin behar degu?

EAJ-k berriz "EZ" bakarrik entzuten dela eta azken hauteskundeetan "BAI". Azkenean, Raxoi EZ, ZP BAI.

Hainbeste ez eta bai, bai eta ez, okerrena ez ez eta ez bai! Gaztele-raz "No sabe / No contesta". Badi-rudi hauek pentsatzen ere ez dutela jarri nahi: "Eske ez dakit zer esan..." eta buelta eman orduko beste norbait larrutzen ariko dira... En fin!

Besterik ez bada abokatuek lana izan dezaten jarrai dezate-la indartsu ezak eta baiak!!!



Ibon Aizpurua



ADI BAZKIDEAK!!

Galdera hau erantzuten duzuenon artean Anadeko Txapelketako afarirako bi txartel zozketatuko ditugu.

Galdera:

Zein izan dira Zumaiako Bertsolari Txapelketa irabazi dutenak?

Erantzunak apirilaren 16a baino lehen utzi Foto Mertxen, Aizpurua liburu dendan edo Baleikeko buzoian.

Bestela helbide elektronikoko honetara bidali: baleike@topagunea.com



Basadi Auzategia, 10 behea
Tel. 943 862051

**SUKALDEKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK**



**Auto-konponketak
ELKAR**

Estazioko kalea Tel. 943 86 02 01



Agure egoskorra



Ixiar Eizagirre

Kreditu txartela atera dio kajako neska gazteari aitonak. "Maxi", "Hiper" edo "Super" reko ilaran atzeko denak zain, karroarekin txorkatiletan joka. "Erakutsi karneta, mesedez" esan dio enpresako uniforme baina tonu zozoagoan. Eta aitonak, lasai-lasai, ENA atera. "Barkatu, baina honek ez du balio", neska gazteak. Aitona harri eta zur: "seguru al zaude honek ez duela balio?". "Seguru" neskak, ernegatuta, ez baitago denbora galtzeko, gainera zer eta enpresako arauak goitik behera jakinda. Baina aitona egoskorra izan: "hemen ez du balio orduan? Harritzen naiz ba. Begira, ni txartel honekin izan naiz Alemanian, izan naiz Austrian... Ameriketara ere bai! Eta leku haietan ez didate pegarik jarri. Eta hemen ez du balio? Zu seguru al zaude?". Neskak glub, ilarako denak begira daude... "seguru nago, horrek ez du balio". Azkenean etsi du aitonak: "beno, beno, zuk hala badiozu, zer egingo diogu ba... Eta etsita gorde du ENA, eta hasi da tomate potoak banan-banan bere lekura bueltatzen. Neskak saltoan: "zaude, zaude! Balio omen du.. hobeto begiratu dut eta balio omen du". Aitona tonto-lixtoa, pozik: "a bai? Banengoen ba ni...". Kutxako goi karguak betea da Antonio Campos. Eta Camposek garbi esaten du, euskaldunok benetako jarrera "erradikala" hartuko bagenu eta Kutxan lehenengo hitza euskaraz egin, honezkero leihatilako langile denak euskaldunak lirakekeela. Bezeroak beti baitu arrazoia, baita euskaraz hitz eginda ere, dirua tartean denean. Aitona tonto-lixto gehiago behar ditugu.

Eta leihatila zain akonplejatu gutxiago

Estitxu Eizagirre



Nahiko ridikulua da ENAk Europako toki denetan balio izan diolako onartzea, azkenean, bertako saltokietan. Bertakook izan behar genuke bultzatzaile nagusi. Euskaldunok beti kanpoa dugu gure ispilu. Jada galdua dugu geure buruarekiko pertzepzioa, jada ez dakigu gugan zer den eder eta zer ez. Era berean, katalan batek egin behar du elkarriketaren aldeko diskurtso eta praktikarik sutsuena. Carod Rovirarekin marabilatzen gara, bertako politikariek izan behar luketenean bertako alde denekin kontsentsua bilatzen interesatuenak. Kulturaren alorrera etorrita, Amerikako Estatu Batuetatik etorri behar du ikerlari batek, Miren Azkarate kultura sailburua pentsatzen jar dadin bertsolaritzak nazioartean zer bide egin behar duen. Aipatzen hasi gabe, zenbat artista egin den kanpoan ezagun etxean kasu egiten hasi zaion arte. Akonplejatuak gara. Hainbeste barkamen dauzkagu emateko, hainbeste akats, hainbeste traba egiten diogu munduari, ezen kobratzea tokatzen zaigunean ere ordaindu egiten baitugu. Ibarretxeri galdetu, bestela. Zenbat aldiz esan dugu "barkatu..." besteek hanka zapaldu digutenean?

Aitona salbuspenna da

Aitor Manterola



Zapaltzen hasita, albokoek hanka ez ezik beste hainbat gauza ere zapaltzen dizkigute. Eta euskaldunok konturatu ere ez!! Lasai bizi gara geure zilborrari begira. Lasai eta ondoegi, esango nuke. Eguna joan eta eguna etorri, sailburuak eta politikariak Euskadi (portzierto, zer arraio da hori: EAE? Euskal Herria?) munduko lekuri onena dela esaten azaltzen dira komunikabideetan. Eta guk, inozo-inozo sinetsi egiten diegu. Norekin konparatzen gaituzten aztertuko

bagenu, sikiera. Hanka eta beste gauza asko zapaltzen dizkiguten horiekin konparatuta, ez da zaila nabarmentzea. Bien bitartean, gurdari tiraka ari den idia bezala gabilta euskaldunok, itsu-itsu, nagusi garela sinetsita. Euskaldunon historia luzea aztertuta, beti edo ia beti elkarren kontra aritu izan gara.

Tontoak garela esaten dut nik. Eroskira joan zen aitona salbuespenna izango zen. Kasualitatez ez zen ba Carod Roviraren aita edo aitona izango?

Eskualdeko berriak euskaraz ematen dituen egunkari bakarra

Hilabete pasatxo bada Urola-Kostako hamaika herrietako berriak euskaraz ematen dituen egunkaria kalean dagoenetik

Otsailaren 20an atera zen lehenengo zenbakia, eta harrez gero, makina bat albiste kontatu ditu. Era guztietakoak eta kolore askokoak. Ikuspuntu guztiak biltzeko asmoarekin, beti ere. Horixe da, hain zuzen, Hitzaren ezaugarrieta-ko bat: plurala izatea. Gizartean pentsamolde guztietako iritzia duten pertsonak izanda, ezinbestekoa da guztien ahotsa izatea. Eta hilabete pasatxo honetan, Hitza emandako hitza betetzen ari da.

Egitasmoaren beste ezaugarri nagusia kalitatezko egunkaria izatea da. Albisteak jorratzerakoan herrietako berriak ematen dituzten gainontzeko egunkariak baino kalitate hobea izatea ezinbeztokotzat jotzen da. Eta horre-



tan ere, kazetariak eta lan talde osoa, orohar, saiatzan ari dira. Begibistakoa da, gainontzekoen aldean beste ikutu bat duela Hitzak. Eta ez da kalifikazio merkea. Kaleko jendeak esandakoa dira horiek. Egunero-egunero etxeko buzoian egunkaria jasotzen dutenek esandakoa. Eta horixe izaten da egunkari baten lana neurtzeko era onena. Irakurleak gustura badaude, egindako produktua ona delako izango da.

Eguna joan eta eguna etorri, euska-

ra hutsean herriko berriak jasotzea zoragarria da. Zumaian, 600dik gora dira egunero Hitza buzoian jasotzen duten herritarrak; egunero euskaraz irakurtzen dutenak; egunero gure hizkuntzarekin harreman zuzena dutenak. Irakurle horientzat Hitza garrantzitsua da. Egunero behar dute. Euskaraz egunero irakurtzeari garrantzia ematen diote, eta Hitzak horretarako aukera paregabea ematen die.

Hori horrela izanda ere, oraindik badira batzuk Hitzaren garrantziaz jabetu ez direnak. Eta, zoritxarrez, horien artean dira Udalean agintea dutenak. Jarrera ulergaitza da, benetan. Euskarazko egunkari bati merezi duen adinako babesa zergatik ez diote ematen? Alderdi abertzaleek euskararen aldeko egitasmo bat babesten ez badute, nork egingo du hori? Eskerrak, politikoak gizartearen aurretik doazen euskararen arloan, eskerrak...



**ALBAITARITZA
KLINIKA**

MIREN SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
IÑAKI GARMENDIA MENDIZABAL

-ALBAITARIAK-

astegunetan: 16:30-20:00

larunbatetan: 10:30-13:30

Basadi, 7 behea

Tel. 943143310

Tel. mugikorra: 608- 775508

Larrialdiak
- 24 ordu
- zeure etxean

Karmengo Ama, 14
E-20749 Arroa (Gipuzkoa)
Tel/Fax: +34 943 14 83 06
e-mail: bakun@euskalnet.net



Bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L



amaiako plaza, 2
Tel. 943 143278

Maite
ileapaindegia

ODONTOLOGIA - PROTESIS DENTAL

CLINICA DENTAL ZUMAITZ HORTZ KLINIKA

Plazola de los Fueros - Bajo
Tel. (943) 66 16 74
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

Garraio
Rafael Insausti Elgoibar

ert
informatika

tresna digi-
internet
scanner

Eusebio Gurrutxaga, 6
Tel. 943 14 33 95

DALAC
CONSEJO REGULADOR

Anadeko txapelketa haiek...

Zuetako batzuek gogoan izango dituzue 1986tik 1990erako tartean Anade elkartean jokatu ziren txapelketa haiek. Beste batzuek, aldiz, inoiz entzun bai, baina adinagatik edota beste zerbaitegatik ez zitzaizuen egokituko giro berezi hura bizitzea. Hara Joanito Dorronsorok nola deskribatu zituen txapelketa haiek "20 urte kantari" liburuan.

Zumaiako bertsolarien arteko bost txapelketa jokatu ziren, hasi 1986an eta bost urtetan segidan, santelmo festa ondorengo ostiral gauetan. Zumaiako Bertso Eskolak eratu zituen Anade elkartean, hau entzulez leporaino beteta, lagunarteko afari ondorengo giro ederrean. Bi eratako bertsolari mota ikus zitekeen partaideen artean; alde batetik, Balentin eta Andres Eizagirre anaiak, Eladio Leturiondo, Jabier Manzisidor (Santa Klara), Fermin Martija (Bartolonekoa), Koldo Aldalur, Pello Jauregi II (Urtiaberrikoa), Attola II.a eta Lizarreta bertsolari tradizionalen mailan jarriko

genituzkeen jende heldua eta, beste aldetik, Bertso Eskolatik zetozen gaztetxoak: Josu Garate, Jon Maia, Joxe Joakin eta Felix Aizpurua, Iñigo Berastegi, Jon Manzisidor, Iker Urain, Mikel Garate... Lehenbiziko urtean zumaiarrek bakarrik hartu zuten parte, Baxakarte, Olalde eta Jauregi I.a, Gipuzkoa mailako bertsolari zirenak aparte lagata, baina bigarrenetik aurrera Elorriaga eta Itziarkoen bultzada garrantzitsua izan genuen. Zumaiako txapela jantzi zutenak, Josu Garate, Jon Maia, Joxe Joakin Aizpurua eta Lizarreta izan ziren. Olaldekin egin ohi zuen saioaren zuzendari lana eta epaimahaiko berriz, Imanol Lazkano, Sebastian Lizaso, Axentxio Elustondo erretore zena, Baxakarte, Otamendi, Telleria, Zaldubi izan ziren bost urtetan zehar, eta idazkari lanetan, berriz, Feli Uria, Ester Osa eta M^a Jesus Aizpurua. Lagunarteko afaria prestatzen, nola ez bada, Joxeba Garate izaten genuen sukaldari, Fermin Azkue laguntzaile zuela, eta giro

oso egokia izan ohi zen era honetako ospakizun baterako.

Ikastolatik horretarako grinaz zetozen gaztetxoei bidea ireki eta aldi berean herriko bertsolari tradizionalei aukerak zabalduz, bi eratako bertsolari eta bertsozaleen arteko adiskidetasun lokarriak estutzea zuen hain zuzen ere helburu txapelketa honek Bost urteren buruan ikastolatik zetorren iturria agortu egin zen eta bestela ere ez zuela gehiagorako ematen eta hala bukatu zen ekimen interesgarri hura.



- * Eguneroko bazkaria
- * Pintxo eta bokatak
- * Koadrilentzako menu bereziak
- * Kazuelitak eta plater konbinatuak

Erribera kalea, 16
Tel. 943 862517



Tel. 943 143379



Zumaiako VI. bertsolari txapelketa apirilaren 23an

Santelmoetako bigarren ostiral gauean jokatu da, aspaldiko partez, herriko bertsolarietako zuzendutako txapelketa Anade elkartearen. Hamar-hamabi lagunek parte hartzea espero dute eta gehienak Jon Maiarekin aritzen diren neska-mutilak dira.

Bertso Eskolan dabilen gazteek kantatzeko aukera gutxi izaten dutela kontuan hartuta eta lehen ibilitakoek oraindik ere bertsoetan badakitela frogatu dezaten, berriz ere 80ko hamarkadako saio haien ereduari heldu eta VI. txapelketa antolatzea erabaki du Bertso Eskolak.

Hasteko, eta ohitura ona jarraituz, afaria izango da, gaueko 9etan eta txartelak Metro eta Trapaia tabernetan egongo dira salgai. Menua ere, oker handirik gabe, klasikoa izango da: entremesak, olagarro-zopa eta oilaskoa entsaladarekin.

Afalondoren, berriz, kafea (eta nahi duenak kopa eta purua) hartuta, saioa hasiko da, Jon Maia aurkezle dela. Ia ziurtatuta dauden bertsolariak honakoak dira, gehienak orain Jon berarekin ikasten ari direnak eta beste

batzuk garai batean Bertso Eskolan ibilitakoak:

FELIX AIZPURUA
MANEX ELOLA
MADDI GALLASTEGI
GAIZKA GASTIAIN
UNAI GIJARRO
JOKIN GIJARRO
GORKA IRIBAR
OIHAN IRIBAR
URTZI IRIBAR
JOSU MANZISIDOR
MARKEL PEÑALBA
MAIALEN VELARDE

Beste norbaitek ere parte hartu nahiko balu nahikoa du Forondan izena ematea apirilaren 6a baino lehen.

Saioak bi zati nagusi izango ditu. Lehenbizikoa kanporaketa izango da eta denek parte hartu beharko dute, honako lanak eginez: hasierako agurra, ofizioka zortziko handian bina bertso eta bakarka lau oinak eta hitza emanda bertso bana. Bigarren zatian puntuazio altuena lortzen duten 4 bertsolarietako abestuko dute eta honako lanak egin beharko

dituzte: ofizioka zortziko txikian hiruna bertso eta kartzelako lanean bi punturi erantzun eta gai bati bi bertso bota.

Sariak ere ez dira txantxetakoak: onenak txapela, 300 euro eta kopa jasoko ditu eta bigarrenak, berriz, 150 euro eta kopa. Sari berezi bat ere egongo da publikoak hautatutako bertsolariari emango zaiona.

Ea saio polita ateratzen den eta argi ibili txartelik gabe geratu nahi ez baduzue!



ad **AUTOS ZUMAIA**

Urola plaza 3-5
Tel: 943 86 14 85

Kresala
Taberna

Julio Beobide 3, tfno. 943 019 869

ALTZARIAK OSTOLAZA
ARROZTEGIA

Mota guztietako altzariak eta arroztegi lanak

Julio Beobide, 1
TEL: 943 861325

RAFAEL DEL PILAR ZUFIA
 DELINEATZAILEA

"Arbustaingo garabiari hiltzen utzi diote"

Rafael del Pilar Zufia "Arbustain garabia gogoan" lanaren egilea da. Bizitza osoan delianeante lanetan aritu denez, bere liburuko gauzarik garrantzitsuenak garabiaren inguruan egin dituen planoak dira.



2 9 urtez Donostian aritu da lanean eta zumaiarra izanik euskaraz ez jakiteak izorratu egiten diola esan digu. Bidaia ugari egindako gizona da. Kenian, Akonkagan, Nepalen eta beste hainbat tokitan ibili da bidaiatzen motxila bizkarrean hartuta.

Gaur egun jubilatutik dago eta bakarrik bizi denez, daukan denbora libre hori aprobetxatzen du Zumaiako historiak gure artean iraun dezan lan egiteko.

Zerk bultzatu zaitu garabiaren inguruko lan hau idaztera?

Pio Baroja idazle famatuak dioen bezala, nik liburu hau nire ibilbidearen azken biran nagoelako idatzi dut. Hau

da, nik badakit hemendik urte batzuetara ez naizela hemen egongo eta horregatik begirune gehiagorekin ikusten dut gaur egun Arbustaingo garabia.

Gainera, garabiak lan egiteari utzi zioenean Udalaren aldetik jasandako arduragabekeriak indarra eman dit liburu hau idazteko. Garabia honi hiltzen utzi diote eta hori da tristeena. Kontua da, ez dutela dagoen tokitik kendu, baizik eta erortzen utzi dutela.

Bestalde, Zumaian herriko historia mantentzeko edo denboran irauteko motibazio hori galdu egin da. Garabia Zumaiako historiaren zati bat da, gustatu ala ez gustatu. Zati txiki bat da baina zati bat. Ondorioz, garabia galtzen bada gure historiaren zati bat galtzen dugu eta horrek asko

izorratzen dit. Horregatik erabaki nuen liburua idaztea.

Lehen aipatu duzu Zumaiko Udalak ez duela interes handirik azaldu Arbustaingo garabiarekiko. Zeren ondorio dela pentsatzen duzu?

Modernoak direla pentsatzen dute eta orduan gauza hauek ez zaizkie gustatzen. Horrelako kontuek ez dute dirurik ematen, ez du ezer produzitzen. Gainera, euren mentalitatean gauza guztiak berritzea dago. Uste dute kanpotik datorren norbaiti gehigo erakarriko diola gauza berri batek eta hori ez da horrela. Turistek ez dituzte gauza berriak bilatzen, gauza zaharrak interesatzen zaizkie. Baina hori Udalak ez du ulertzen eta ulertzen ez duenez garabia kentzea erabaki zuten.

Zer sentitu zenuen garabia erori zela jakin zenuenean?
Ba malkoak atera beharrean egon nintzen. Izugarritzko haserrea hartu nuen.

Inpontentzia sentitu zenuela esan dezakegu?

Bai, hori da. Nik gainera udalari behin eta berriz esan nion garabia ez zegoela egoera onean. Garabia honek, liburuko argazkian ez da agertzen baina bai planoetan, bi tirante finko ditu bertikaltasuna mantentzeko. Kontua da, tirante horiek matxuraturik zeudela eta orain dela urte batzuk tirante horiek kentzeko agindua eman zutela. Horren ondorioz, garabia doblaturik gertatu zen. Egurra ere, denborarekin usteltzen joan da ezer tarako balio ez duen unera iritsi arte. Konponbidea zeukan gauza bat alferkeriaren ondorioz galdu dugu. Garabia egoera onetan mantentzeko urtero egurrari pintura pixka bat eman beharko litzaioke eta ondoren, grasa apur bat zati metalikoei. Era horretan, 100 urte gehiagotarako garabia izango genuen. Baina ez dute ezer egin. Eta, noski, gauzak era horretan tratatuz azkenerako apurtu egiten dira. Ez dute ez begirunik ez sentimendurik azaldu. Indiferentzia izan da nagusi. Molestatu egiten ziela zirudien.



“Udalekoek modernoak direla pentsatzen dute, eta gauza hauek ez zaizkie gustatzen”

Garabia berrizatzea posible izango dela uste duzu kanoiekin egin duten bezala?

Zerbait egin daiteke, baina zalantzarik gabe ez da gauza bera izango. Izan ere, garabia erori zenean pieza asko hautsi ziren. Pieza metaliko batzuk konserbatzea posible da baina ez da gauza bera. Gauzak bizirik mantentzen saiatu behar da hori bai, duintasunarekin beti ere. Ez eskapate baten moduan.

Kanoiena aipatu duzu lehen eta kanoiekin beste gauza bat gertatuko da. Kainoi horiek 300 urte baino gehiago dituzte eta jarri dituzten bezala jarrita hau da, aterperik gabeko tokietan jarrita, klimaren hezetasuna... jasan beharko dituzte. Eta horrek kalte handiak egiten ditu. Kanoi horiek konserbatzeko aterpean jarri beharko lirateke.

Liburuari berriro helduz, nondik atera dituzu planoak egiteko informazio eta datu horiek guztiak?



Amaiako plaza z/g Tel. 943 860959



• taberna •

kaxuelita eta pintxo ezberdinak

Upela plaza, 4 tel: 943 860970



Ingelesko klaseak adin guztietan
San Jose, 11 bis Tel. 943 143334



“Planoen bitartez
beste garabia bat
egiteko aukera dago”

Garabiara joan nintzen boligrafo, koadernotxo eta metro batekin eta pieza bakoitza, piezaz pieza, neurtzen hasi nintzen. Horrelako lan bat egiteko ezin dituzu datuak asmatu, neurriak hartu behar dituzu. Bizitza guztian delineante lanetan ariturik planoak egin eta egin aritu naiz. Garabiaren planoak egitean zorte handia izan nuen, izan ere, planoen neurriak 1999ko iraila eta urria bitartean hartu nituen eta garabia 2000. urteko apirilaren 26an erori zen.

Garabiaren inguruko gutun garrantzitsu bat ere topatu duzu.

Bai, gutun horretan garabiaren prezioa agertzen da. Gutun hau 1931. urtekoa da. Garai hartan garabiaren kostua 14.700 pezetakoa izan zen. Batzuek esaten dute garai hartarako garestiegia zela, baina niri ez zait iruditzen. Nik uste dut gehiago kostatu behar zuela. Baina gutun horretan jartzen duena sinestu egin beharko dugu.

Gutun hau Arroiabe jaunak eman zidan. Pertsona honek zenbait xehetasun erraztu zizkidan nik ezagutzen ez nituenak. Kontuan izan behar baita garabiaren inguruko dokumentazio oso gutxi dagoela.

Zenbat denbora behar izan duzu liburu hau idazteko?

Liburu idazteko ez nuen denbora handirik behar izan.

Zerbait idatzi behar duzunean idazten hasi eta amaitu egiten duzu.

Hasiera batean, planoek bakarrik osatutako lana egin nahi nuen, horrek baitauka benetan balioa. Plano horien bitartez beste garabia bat egiteko aukera dago.

Hori izan da zure helburua? Plano horiek beste garabia bat egiteko egin dituzu?

Bai, behintzak egunen batean beste garabia bat egiteko aukera egon dadin. Eta horretarako planoak beharrezkoak dira. Horregatik, hasiera batean planoen inguruan bakarrik egiten nuen lan baina, gero kalean esan zidaten hori pobregia izango zela. Azkenean, aholku horiei jarraituz testua sartzea erabaki nuen. Baina horrek ez zidan denbora askorik kendu, denbora planoek kendu zidaten. Izan ere, etxean ez daukat baliabide egokirik planoak egiteko. Sukaldeko mahai gaineko platerak kendu, kartaboiak hartu eta horrelaxe egin nituen planoak.

Salgai jarri al duzu liburua?

Ez doakoa da. Edizio limitatu bat da 320 alez osatua.

Udalaren aldetik ez duzu inolako laguntzarik jaso liburua argitaratzeko?

Nire ustez, udala da garabia erori izanaren erruduna. Eta

ilarfi
Alai auzategia, 2
Tel. 943 14 33 24

Itzurun
ATEAK

- Material guztietako leihoak:
PVC, poliuretano, aluminio eta egurrezkoak
- Armairu enpotratuak
- Tarima, ate eta era guztietako pertsianak
- Lanen zuzendaritza


Bezeroak gustura uztea da gure helburua

Itzurun zuhaitzbidea, 2 943861565 - 943143446

EGOKI

Erloju eta bitxidenda

E. Gurrutxaga plazan



hori pentsatuta ez nintzen ba diru-laguntza eurei eskatzera joango! Nire handikeriak ez zidan baimenik ematen.

Zer moduzko harrera izan du liburuak?

Ona izan duela iruditzen zait. Izan ere, 320 liburu horietatik etxean 90 bakarrik geratzen zaizkit. Gainontzekoak atera dira. Hala ere, ez zitzaidan publizitate handiegia ematea gustatzen.

Zergatik ez zenuen publizitate hori nahi?

Ez naiz publizitatearen lagun. Nahiago dut nik nire aldetik ibili.

Hala ere, liburuan aipatzen duzunez, liburu horren helburuetako bat jendeak Zumaiaiko historia zein den jakitea da eta bide batez denboran ez galtzea. Publizitatea ez emate hori eta jendeak herriko historia ezagutzeko daukazu gogo hori ez da apur bat kontraesankorra?

Bai, nire aldetik kontraesan bat dago hor. Alde batetik, atarzteza nahi dut eta bestetik, ezkututzen ari naiz. Baina hori da nire izateko era. Hau, sentitu egin behar da. Niri horrelako 50.000 liburu egitea gustatuko litzaidake, baina ni ezkutuan egonda.

Lehen esan diguzun bezala ez zaizu askorik gustatzen Zumaiaiko Udalak zenbait gairen inguruan duen jarrera.

Zer egingo zenuke zuk Zumaian alkate izango bazina?

Uffff!! A zer galdera! Nik badakit ni alkate jarriko banintz ez nukeela 6 hilabete ere iraungo, jendeak arriskutsua naitzela pentsatuko baitzuen.

Nik alkate bezala honako hau egingo nuke:

1. Lurrak sozializatuko nituzke gazteentzako etxebizitzak egiteko oso prezio merkean.

2. Zumaian bariantea egingo nuke.

3. Behingotatik eskua sartuko nuke Zumaiaiko ibaia kutsatzen duten enpresa guztietan. Zumaiaiko itsasadarra ez da egon inoiz hain kutsaturik. Hor zeresan handia dute hala nola, Zumaiaiko Torreaga fundizioak, Olaizola galbanizatuak, Ortiz... Baina ez Zumaiaiko enpresek bakarrik. Aizarnazabalgo papelerak ere txerrikeria izugarri isurtzen du.

Eta hemen ezin dugu ahaztu depuradoraren kontua. Berez, 2002. urterako eginda egon beharko luke. 2004. urtean gaude eta hemen ez dago ezer.

4. Aldatuko nukeen beste gauza bat. 2012. urterako 1.020 etxebizitza eraiki behar omen dira Zumaian. Kontua da, Zumaian etxebizitza asko eta asko hutsik daudela. Orduan zergatik ez digutu etxebizitza horiek alokairuan jartzen? Alokairuan jarriko bagenitu 500 edo 600 etxebizitzekin agian nahikoa izango litzateke.

Hauek guztik ekologiaren aurka doazen prozesuak dira. Euskal Herria bezalako lurralde polit bat, jende mota honengatik, munduko lurralderik txarrena izatera iritsiko da.

Amaitzeko, ba al duzu buruan beste proiektu edo lanen bat?

Bai, beti dago zerbait. Une hauetan nire ilusiorik handiena Arrangoleta auzoaren inguruko lan bat egitea izango litzateke baina 11-12 urteko mutil baten ikuspuntutik. 1948ko Arrangoleta adibidez, hori izan baita guk ezagutu duguna. Beste lan bat buruan darabilkiguna antzinako Errota berreskuratzea izango litzateke. Errota horretan artoa xehatu zuten baina horren inguruko oso dokumentazio gutxi dago.



TV-VIDEO-HIFI
ELEKTROGAILUAK
SUKALDE ETA BAINUKO ALTZARIAK
ERRIBERA, 8 943 861694

AROTEGIA

Urola 2000, s.l.

- *Eraikuntzen akabera eta dekorazioa
- *Baserrien zaharberritzea
- *Enbarkazio konponketa
- *Ate, zokalo tarima eta pertsianak
- *Armairu enpotratuen aurrealdea
- *Aroztegi metalikoa

Trenbide kalea, 1 Tel. 943143505



Tel. 943 860000

ERROTA
OPIL-OKINDEGIA

Lan isila

Idoia Idigoras eta Rakel Nacenta restaurazio lanetan aritzen dira. San Telmo txikia beraiek berritu dute. Ezkutuko lana da beraiena, anonimoa.



Elizako eskulturak edo tailuak. Koadroak. Portzelanazko irudiak. Horrelakoak izaten dituzte esku artean Idigorasek eta Nacentak. Bi neska hauen lana egoera txarrean dauden artelanak berritu edo zaharberritzea izaten da. Restaurazioa.

Egin duten azkeneko lana San Telmo txikia berritzea izan da. Joan zen urteko santelmoak bukatu eta berehala, egoera txarrean zegoen San Telmo txikia berritzeko eskatu zieten herritar batzuek. Udalak lagunduko ziela esan ondoren hasi ziren lanean. Eta urtarri-

lean bukatu zuten. Orain bere lekuan dago berriro San Telmo txikia, dotore asko. Inork gutxi daki, ordea, eraberritzeko lan bikaina nortzuek egin duten. Bere lekutik kendu zutenean ere zurrumuru asko izan ziren; lapurtu egin zutela, norbaitek hartu eta etxera eraman zuela...Orain, konpondu dutenean ere misterio kutsu hori gordetzen du, jende gehienak ez dakielako nortzuek konpondu duten. Izan ere, restaurazioaren ezaugarrietako bat da egileak ezezagunak izatea, inon ez azaltzea lanaren egileak nortzuk diren. "Ezkutuko lana da gurea, jende aurrean ez da azaltzen nork egin duen", azaldu du Idoiak. Rakelek baieztatu egiten du hori, "ahoz ahokoa da, eta egileak berak nahi ez badu inork ez du jakiten".

Lanak eskuratzea

Rakelek eta Idoiak Arte Ederrak ikasi zituzten, zaharbertzearen edo restaurazioaren adarretik. Harrez gero, lan dezente egin dituzte. Rakelek, esaterako, Orioko elizako bi tailu edo eskultura berritu ditu, baita mihise edo lientzoak ere. Idoiak ere antzeko lanak egin ditu. San Migeleko elizan dauden erretaulako tailuak konpontzen aritu izan da. Hala ere, horietako lan gehienak elkarrekin egin dituzte. Izan ere, bai Rakel eta bai Idoia bestelako lanetan aritzen dira egunero. Restaurazioa hobbiea da beraientzat eta elkarri lagundu beharra daukate. Bakarka arituta ezinezkoa izango zitzaien hainbeste maite duten zaletasunean jardutea.

Lanak eskuratzeko norberak mugitu behar duela dio Rakelek, "aurea hartu behar da, eta lanen bat egiteko norbere burua eskaini beharra dago". Orain arte egin dituzten lan guztiak aipatzekoak baldin badira ere, bat nabarmentzen

dute. Izan ere, Idoiak eskuratzeko lan batek aparteko aipamena merezi du. Antikuario batek XVIII. mendeko koadro bat eskaini zion. Zizko eginda zegoen, eta dena konpondu zuten bien artean. Horrelako lan bat esku artean izanda, "beldu-rra sentitu nuen hasieran. Errespetu handiagoa ematen du aspaldiko artelan batekin lana egin beharrak", esan du Idoiak. Errespetuak errespetu, berritu zuten koadro misteriotsu hori, baina "ez dakigu non dagoen. Antikuarioak hartu zuen, eta auskalo non dagoen", dio Idoiak, pena pixkatekin.

Metodologia ezberdinak

Restaurazioa lantzeko era asko daudela esan digute Idoiak eta Rakelek. Esku artean duten lanaren arabera da erabili beharreko metodologia, "ez da gauza bera koadro bat edo tailu bat berritzea. Bakoitzak bere martingalak ditu", aipatu du Rakelek. Hala ere, bi neska hauen lana egiteko moduak badu berezitasun bat. Ahal den neurrian, behintzat, esperimendu egiten dute. "Beti ezin da egin, ikusi egin behar delako obra zein egoeratan dagoen, baina gure lanean ezinezkoa da probak egiten ibiltzea", azaldu du Idoiak. Errestauratzaileen ezaugarrietako bat da hori. Restauratu behar duten objektuaren aurrean jarri, eta mila aldiz begiratzen diote. Orijinalera ahalik eta gehien gerturatu beharra izaten dute, eta hori lor-



"Ezkutuko lana da gurea,
jende aurrean ez da
azaltzen nork egin duen"



Ermitako San Telmoren
tailua hartu dute gia
bezala

tzeko "ezin dugu bat-batean lanean hasi. Ondo begiratu eta aztertu beharreko kontua izaten da". Esaterako, azkena berritu duten San Telmo txikiari kapak kendu eta kendu aritu

zatzazkie orijinala aurkitu arte. Dena den, beti ezin izaten da hori egin, eta orduan, beste erreferentzia bat aurkitu behar izaten dute, "adibidez, San Telmo txikiaren kasuan, ez genuen orijinalaren erreferentzia konkreturik, eta horregatik ermitan dagoen San Telmoren tailua hartu genuen gia bezala", esan du Rakelek.

Beste kasu batzuetan, ordea, gia edo erreferentzia jakinik ez dute izaten. Kasu horietan beste bide bat hartu beharra daukate, Rakelek oso gustuko duen bidea, hain zuzen: liburuak. Nahiz eta liburuetara ia beti jo behar izaten duten (berritu edo restauratu behar dutena-

ren berri izateko), beste zenbait kasutan, ezinbestekoa zaie liburuetan murgiltzea orijinalaren aztarnak aurkitzeko. Lan hori oso gustukoa du Rakelek, "derrigorrezkoa delako, baina batez ere, historia ezagutzeko aukera paregabea ematen dizulako". Behin, liburuen bitartez istorio harrigarri bat ezagutu zuela kontatu digu. Nonbait, Orioko parrokoiko tailu bat restauratzeko esan zioten. San Ramon Onatoren irudia zela esan zioten Rakeli, baina liburuetan begira hasi, eta beste santu bat zela konturatu zen. Ez zen San Ramon Onato. Esku artean zuen tailua San Pablarena zen. Oriotarrak ziur zeuden Onatoren irudia zela, baina Rakelek baieztatu zien, liburuetan begiratuta, San Pablo zela. Horrek hasieran aipatutako misterio kutsua eman zion Rakelen lanari. Non zegoen San Ramon Onatoren irudia? Bila eta bila aritu ondoren, azkenean azaldu zen, " hilda dagoen apaiz oriotar batek zuen, etxean ezkatututa". Azaldu zene-

Galdona



Mendaro marinela, 1 Tel. 943 861117
943 143346
Juan Belmonte, 15 Faxa. 943 861330



Basadi Auzategia, 15 Tel. 943 14 34 84 ZUMARRA



Basadi Auzategia, 9-A 2-B

**OSASUN-ZIURTAGIRIAK GIDATZEKO ETA EHIZARAKO
BAIMENAK LORTZEKO**

Ordutegia: astelehenetik ostegunera, 18:00etatik 20:00etara

Aurretik ez dago txanda eskatu beharrik. Eraman beharrekoa: gidatzeko baimena eta argazki bat

Ipar Kalea 17, Behea, (Pagoeta Tabernaren ondoan) ZARAUTZ
Telefono zenbakia: 686 954 299



Patxita Etxezarreta, 25 Tel: 943 862073

an, Rakeli eman zioten, eta restauratu zuen, azkenean, benetako San Ramon Onatoren tailua.

Restaurazioaren egungo egoera

Lehenxeago aipatu dugu Rakelek eta Idoiak beste lantegi batzuetan egiten dutela lan, eta restaurazioa hobbia dela beraiantzat. Nahiz eta gustatuko litzaieken benetan gustuko duten horretatik bizitzea, beste lan batzuetan aritzea adierazgarria da restaurazioaren egungo egoeraz jabetzeko. Lana egon badago, baina, "Gipuzkoan, adibidez, hiru enpresa daude, eta horiek hartzen dituzte lan guztiak", dio Idoiak. Enpresa horietan ondo kokatuta egotea ezinbestekoa dela gaineratzen du Rakelek. Gainera, enpresa edo tailer horietan sartuta ere, arazo guztiak ez lirakeke konponduko, "zaila da tailerretan eta enpresetan sartzea, baina sartuz gero aldi baterako lanak ematen dizkizute". Ondorioz, ez da lantegi batere segurua. Gustukoa izan arren, "ez du konpentsatzen horrela ibili beharrak. Beste lan batzuk zaurtasun handiagoa ematen dute".

Erakundeek behar bezala laguntzen dituzten galdetuta, aipatu digute ematen dutela, baina Euskal Herritik kanpo askoz laguntza handiagoak daudela. Lan gehienak hiru enpresen esku badaude, eta zaila baldin bada hor sartzea, bien artean tailer antzeko bat sortzea pentsatu al duten galdetu diegu.

"Pentsatu izan dugu, orain urte batzuk hori egitekotan egon ginen, baina azkenean ez genuen pausoa eman, norbere tailerra sortu eta eratzeko oso seguru egon behar duzulako", erantzun digute Idoiak eta Rakelek. Izan ere, restaurazioak ez du jarraipenik, "oraintxe lan asko duzu, eta gero, berriz, ezer ez".

Materialei dagokinez, Udalak laguntzak ematen dizkietela esan digute. Dena den, tresna sinpleak erabiltzen dituztela gaineratu dute: brotxak, kolak, bisturiak...Lana egiteko duten lekua bezain sinpleak, ia-ia. Lantegitik irten, eta Idoiaren etxeko ganbaran aritzen dira lanean. Beste lekurik ez duten bitartean, horrekin konformatu behar.

Etorkizuna

Oraingo bide beretik jarraituko dute Idoiak eta Rakelek. Behin eta berriz aipatzen dute, restaurazioa ez dela lan ziurra, eta nahiago dutela segurtasunarekin lan egin. Hortaz, hain gustukoa duten lanean buru-belarri murgiltzeko asmorik ez dute. Orain arte bezala segituko dute. Norbaitek zerbait berritu edo konpontzeko eskatzen dienean ariko dira restaurazio lanetan. Hala ere, "beti dugu zerbait egiteko. Lan garrantzitsuren bat ez bada, hor daude lagunen eta ezagunen betiko enkarguak: Jesus Haurraren irudiak konpondu eta horrelakoak".

Begiz jota lanen bat duten galdetuta,

Rakelek baietz erantzun digu, "Paolean itsasoak eraman zituen gazte haien oroimenez egindako mosaikoa berritu nahiko nuke". Oso gustukoa du, baina arazo handi bat dauka: Espainiako Gobernuaren eskumena da Paoleko ingurua, eta haren baimena beharko luke mosaikoa dagoen lekutik kendu eta berritzeko.

Ilusio hori bete bitartean, izango dituzte beste enkargu batzuk. Lan horiekin ariko dira, isilik, inork gutxik jakin gabe. Ezkutuan ia-ia, misterio kutsuarekin. Oraindik ere hamaika ezusteko aurkituko dituzte, baina beraiantzat gordeko dituzte. Anonimoak dira, baina lan handia bezain ederra egiten dute. Isileko lana.

dekorazioa

ALBERDI



696 726188
943 143261

- Eskaiola
- Pladur-a

B. Etxegarai 2, behea
943 86 27 14

Y
i
N



Y
Z
G

GAZTEEN ERAOPIA

GIZARTEKINTZA zentru soziala

KAFETEGIA - JATETXEA

- Eguneko menua
- Plater Konbinatuak
- Kaxuelitak
- Kuadrillentzako afariak

- denontzat irekia

Eusebio Gurrutxaga plaza, z/g Tel. 943 86 17 00



Gipuzkoako Foru Aldundia
Gizarte Zerbitzueterako departamentu



Ignacio Zuloaga enparantza Tel. 943 861157

GALDERA HONI ERANTZUN DIOZUE:

Beharrezkoak al dira moilan, zebra bideetan ipinitako koxkak?

Koxkak?? 12 tontor egunero amortiguadoreek jasaten dituenak, denak ziren beharrezkoak? Bilbainada...

Aitor

Pentsatzen det batzuk azkar ibiiltzen dialako jarri dituztela. Betikua da, lau artaburungatik beste danak izorratu bihar.

Pello

Kotxearentzat txarrak dira, eta gainera, herriaren sarreran, zubi txikian, egundoko ilarak sortzen dira. Beste herrietan jarri dituztenez, guk ezin ba gutxiago izan.

Ainhoa

Kotxea izorratzen zaidanean, alkateari eskatuko diot berria erosteko. Bere soldata handi horren zati txiki bat besterik ez zen izango...

Be at

Udalari ideia bat eman behar diot: zergatik ez dituzue koxken bueltan lorontzi batzuk jartzen lore ederrekin? Ez dakit nola ez zaizuen okurritu, hain lorezaleak izanda.

Inaxito

Gauza bat da koxkak jartzea, baina lotsagarriena da politikoek ez digutela esan zergatik jarri dituzten. Beti ilunpetan gure politikoak!!

Amaiatxo

CROISSANTERIA



pizzak
hanburgesak
bokatak...

marina

Baltasar Etxabe, 2 TEL: 943 860719



SIWA
Belardenda

Besadi 9
943 143404

- Elikadura, belarrak, buztinak, tratamenduak,
- Kontsulta naturista
- Osteopatia, masajek
- Dietak
- Estetizista
- Solariuma
- Tai-chi, masaje eta Reiki ikastaroak



TALAI

INMOBILIARIA 943 143361
BIDAIAK 943 143323
Ortega y gasset, 1



GOIKO BODEGOIA
"Betiko Goiko"

Erribera 9 - 20750 ZUMAIA • Tel. 943 861191



"Muagi"

- ERREHABILITAZIOA
- KIROL MEDIKUNTZA
- FISIOTERAPIA

Aita Mari 3.blokea
Tel. 943 86 16 91

RPS: 066/02

GANBARA

Taberna

Juan Belmonte, 5 Tel. 943 86 10 57

ESTAZIO Kalea, 25 20.750 ZUMAIA
GIPUZKOA Kalea, 33 C.3º 20.800 ZARAUZ
(GIPUZKOA)
Tel. (943) 86 07 78 - (943) 14 09 40

Jardinen diseinu
... mantenimendua
Nekazaritza zerbitzuak
Kirol zelaien mantenimendua
Txostenak ...
aholkularitza teknikoak.
Balorazioak

TXINGURRI
Koop. Elk.
Nekazaritza Injineru Teknikoak

SOLOZABAL AUTOESKOLA

- Klase teorikoak zein praktikoak norberak nahi dituenean *fidatzeko baimen guztiak*
- Klase teoriko ikusentzuzkoen abantailak erabilia
- Merkantiak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak

P. Etxezarreta, 19 bis Tel./Faxa: 943 861416

GAZTE, S.L.
ELEKTRIZITATEA
ARGIDENDA

Era guztietako instalazioak etxebizitza, pabilioi eta herriko argietan

Trenbide 5.pabilioia Tel./Faxa: 943 143402

TAILERRA: Estazioko kalea, 23
Tel. mugikorra: 608 143409

Alberdi
Gizonezkoen moda

Erribera kalea, 6
Tel. 861155

Tapaia
Taberna

Erribera Kalea 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa) Tel. 943 86 19 73

STIOM
taberna

ORTEGA Y GASSET, 3 **943 860151**

ARozTEGIA
Urolo 2000, s.l.

- *Eraikuntzen akabera eta dekorazioa
- *Baserrien zaharberritzea
- *Enbarkazio konponketa
- *Ate, zokalo tarima eta pertsianak
- *Armairu enpotratuen aurrealdea
- *Aroztegi metalikoak

Trenbide kalea, 1 Tel. 943143505

Talaipetikan barran aurrera

JOSU MANZISIDORREK egindako bertso pare hauxe aukeratu dizut gaurkoan, udaberrian sartu berri garen honetan. Egileak udazkena aipatzen digun arren, ez da sasoi txarra hau ere, hain atsegina zaigun paol muturraz gozatzeko, hamarreko handiko hauek kantatuz. Zer deritzozu gure Josuren gonbidapenez?



Zumaiako Bertso Eskola

Doinua:
Sentimendua sartu zitzaidan

-1-

Talaipetikan barran aurrera
abiatuko bagina
Paol puntara helduko ginen
txoko polit ta bikaina
bertan eseriz suma liteke
iparreko haize fina
edo uhinek harkaitzen kontra
isurtzen duten lurrina
presarik gabe egon gaitzekin
behatoki atsegina.

-2-

Edera baita paol puntatik
agertzen den ikusmira
udazkeneko arratsaldean
lainoek duten dizdira
itsasertzeko mendi muinoak
dotore ikusten dira
edo bestela jarri gaitzke
ipar alderantz begira
zerua eta itsas urdina
elkartzen diren tokira.

Foruen Enparantzako azoka

FORUEN ENPARANTZAN (Goiko Plazan) azoka eraikitze proiektuarekin urte askoan amets egin zen arren 1930eko hamarkadaren hasiera arte ezin izan zen errealitate bihurtuta ikusi. Arrazoi nagusiak aurrekontuarekin zerikusia zutenak izan ziren beti. Zerbitzu hau exekutatzeko Udalak 36.000 pezetako partida berezi bat destinatu zuen obren, esleipendunak -Carlos Irigoien Sorazu jaunak- 24.000 pezetagatik egiten bazituen ere.

Merkatua barne hartuko zuen eraikinean azpimarragarriena, San Jose komentua Elizaren sarrerako fatxadaren sestra jarraituz egindako arkupeak izan ziren. Barnean oso apaindura gutxi zuen eta diseinaturiko espazio bakarra salmenta postuena zen.

1952. urtean merkatu honetan erreformak egin ziren. Obra horien xedeak bi izan ziren: alde batetik, arrandegientzako postu iraunkorrak sortzea eta arkuak itxia; bestetik, arrandegien zona eta barazkien, frutaren eta arrautzen postuak horma baten bidez banatzea eta merkatua zabalik zegoen orduetan jendea sartzeko ate bat zabaltzea.

ekin IZTALAZIO ELEKTRIKOAK
TELEKOMUNIKAZIOAK
/elektrizitatea, s.l.
Eribera kalea 18 Behe Tlf/fax:943 143097
20.750 Zumaiak ekin@eckiml.com
Istalatzaila/banatzaila ofiziala

CANAL+ VIA Televisión Digital Canal Digital

Kresala
edergintza

Amalako Plaza
Tel. 943 14 31 35

- Depilaketa (beroa, epela)
- Minik egiten ez duen depilaketa elektrikoa
- Aurpegia edertzeko sendabideak
- Gorputza edertzeko sendabideak
- Lurrindegia
- Solarium-a

D'Ana
Depilandegia

Kantauri Plaza 6, behea tel. 943 117 406

Nikol  Enea

TABERNA

Amalako plaza

OSTOLAZA
BURDINDEGIA

Aita Mari auzategia, 10 behea
tel: 943 86 16 66
e-mail: denda@ostolaza.com
www.ostolaza.com

Iridologia

Batetikak

IRIDOLOGIAREN BIDEZ, eta irisa zehazki mehatuz, gorputzeko gaitz eta lesioen korrespondentziak bilatu daitezke, diagnostiko zuzen eta zehatz bat lortuz. Begietako irisa (koloreztatua dagoen zatia), murmuin sistema eta sistema sinpatikoarekin komunikazio zuzenean dago, eta gorputzeko edozein alteraziok irisaren muskuluan dilatazio eta kontrakzioak ematen ditu.

Iriskak etengabeko jarduna dauka, eta gorputzeko edozein erreakziok eragina izango du irisean, marka asko sortuz: marrak, puntuak, argitasun edo iluntasun guneak...marka horiek nolakoak diren eta non kokatuak dauden kontutan hartzen du iridologiak; iridologoak seinale horiek interpretatzen jakin behar du.

Begi bakoitzak gorputzaren erdia adierazten du, horrela, adibidez bihotzaren eremua ezkerreko begian aurkituko degu, eta gibelarena esku-bian. Parekako organuek, bakoitzak bere eremua izango du ezker-eskubiko begian. Gorputzaren erdian kokatuak daudenak (bizkar hezurra, sudurra, ahoa, mihia, hestegorria...) bertikalki zatituak baleude bezala ageri dira, eta alde bakoitza dagoen irisean ageriko da.

Irisean organu bakoitza kokatu ahal izateko, alde batetik, begininitik hasi eta kanporantz joanda, sei eremu bereizten dira; eta bestalde, irisa erloju baten esfera balitz bezala sailkatzen da, organu bakoitza ordu hipotetikoan kokatuz. Gaur egun, Bernard Jensen doktorearen "mapa iridologikoa" erabiltzen da diagnostiko iridologikoak egiteko.

Bere erraztasun eta balio anitzagatik, teknika hau asko erabiltzen da medikuntza naturalean. Iridologi diagnostiko zuzen batekin, gorputzeko zein organu edo sistema dauden kaltetuak aztertzen da, eta horrela osasunaren baloraketa orokorra egin daiteke. Gero, iridologoak sendatu eta osatzeko beharrezkoak den tratamendu egokia ezarriko du.



Izaga Garcia
Dietista eta
iridologoa

Balendiñe Albizu

Biografia txoia

Z

UMAIAIN JAIO zen Balendiñe Albizu, 1914ko irailaren 18an. Haurtzaro aise eta alaia soma liteke Balendiñeren poemetan. Ordutik geratutako marka beltz bakarra, itsasoari hartutako gorrotoa da, beldurra eragindako gorrotoa. Beldur honek ez dio eragotzi, haatik, poemak eskaintzea Kantauriari nahiz Karibeari, bizitzan zehar alboan izan dituen bi itsaso-ei. Ost urterekin eskolan hasi zen eta hamabi urterekin bukatu ziren hango kontuak. Eskolak ase ez zion jakinminak piztuko zion irakurzaletasuna, ezkutua landu behar izan zuena. Victor Hugo, Unamuno eta Clarin bere kuttunen artean. Hamalau urterekin maitasunari eskaintako poema egin zuen eta Julio Beobideren modelo izaten hasi zen. Gaztaroa batzokiko giroan murgilduta zeraman Balendiñek. Garai honetako da Denbora Hura izeneko poema. Gerra zibila aurrera zihoala, Ondarroara jo zuen itsasontziz. Gernikako bonbardeoak bertan harrapatu zuen eta Gernika sutan poema idatzi zuen gertaerari irtenbidea emanaz. Gero, Bilbora jo behar izan zuen eta geroago Santanderrera, non Juan Manuel Bilbaorekin 1937ko azaroaren 6an ezkondu zen. Handik, Bidartera joan ziren eta han jaio zen Josu, bere seme zaharrena. 1940ko martxoaren 13 Marsellatik abiatu ziren Venezuela bidean. Han ostalaritzari ekin zioten Balendiñek eta bere senarrak, Zuriñe izeneko hotela hartuz eta hura izan zen nonbait lehen euskal etxea Caracasen. 1943an Balendiñek bere bigarren semea izan zuen, Imanol.

Rafael Calvo Leturia izan zuen bigarren senarra. Honekin, bi seme alaba izan zituen: Asier eta Goiz-Eder.

Eusko etxearen inguruan berehala hasi ziren ateratzen argitalpenak -Euzkadi, Euzko Gaztedi, Sabindarra eta Irrintzi- eta hemen daude barreiatuta bere poemak. Gainera, ospakizunetan, ez zitzaion aukerarik falta bere idatziak jendaurrean azaltzeko. Venezuelatik aireratzten zen Euzkadi Irratian ere parte hartzen zuen zumaiarrek.

1995ean behin betirako kokatu zen bere jaioterrian, bertan zituen bi seme zaharrenak.

Argitarapen nagusiak:

1972, *Nere erritar maiteai* olerkia Zeruko Argia astekarian.

1972, *Nere olerki txorta* liburua.

1984, *Olerkiak* liburua, Balendiñeren obra ia osorik biltzen duena



Zoruen kutxilaketa eta barnizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 Tel. 943 861412



Ricardo J. Azcue Yeregui

Abokatuak • Aseguruak
Finika Administrazioak

bonin aguirre 4. behea
20.750 zumak (guzuzkoa)
E-mail: rjzcue@euskalnet.net

Tel. 943 862651
Fax: 943 862746



* Etxeak eta dendak
* Enpresa eta auzo lanak
* Errota garbiketa eta tintaketa

Basadi,3-A
Tel. 943 861670

Euskara

HITZA

A SPALDITIK BEHAR zuen gure herriak eguneroko hitza, euskarazko hitza. Euskaraz bizi nahi duen herriak derrigorrez behar duelako norbere txokoko berri bertako hizkuntzan jakitea. Etxean eta eskolan euskaraz ikasi dugunok hizkuntza lantzeko eta hizkuntzaz gozatzeko gertuko baliabide bat behar dugulako. BALEIKERen hilean behineko lana osatzeko beharra zegoelako. Eta beste mila arrazoirengatik.



Ibon Manterola

Baina HITZA esku artean daukadanean, eskolan euskaraz ikasten eta euskara lantzen utzi ez zieten herritarrekin akordatzen naiz gehienbat. Izan ere, zumaiar gehienok euskaraz badakigula erakutsi zigun orain dela gutxi egindako azterketa batek, baina era berean euskaraz irakurtzen eta idazten ez dakiten herritarrak ere askotxo direla jakin genuen. Horregatik, iruditzen zait, HITZari eskerrak, gure helduek bere garaian eduki ez zuten aukera daukatela orain: egunero-egunero herriko berri freskoak euskaraz jakiteko aukera ederra.

Beste alde batetik, iruditzen zait herritar guzti-guztion ohiturak aldatzeko aitzakia bikaina dela HITZA. Zeinek ez ote du eduki herritarrei holako edo halako deialdiak egiteko beharra: soziedadeko edo elkarteko batzarrak, kintoen bazkari-festak, kirol ekintzak, era guztietako eskerrak ematea, kontzertuak, eta abar luze bat. Deialdi den-denak euskaraz egin eta irakurtzeko aukera emango digu HITZAK. Azken batean, euskaraz bizitzeko bidea egiten jarraituko dugu poliki-poliki, BALEIKE eta HITZA bidelagun.

Entziklopediak on-line

N ORK EZ DU izan etxeko apaletan sartuta entziklopedia bat hautsa hartzen? Garai batean atez-ate ibiltzen ziren saltzaileek etxe bakoitzean entziklopedia bat (edo gehiago) sartu zituzten, askotan alferrik, baina ez beti. Institutuko lanak egiteko, gairen batetaz dugun jakimina asetzeko edo bitxikeriaren bat begiratzeko besterik ez bada, guztiok erabili dugu entziklopediaren bat eskuartean.



Ibon Aizpurua
Informatika ingeniaria

Orain paperean izan beharrean apalak alferrik betetzen, sarean ditugu hainbat eta hainbat entziklopedia. Alde batetik, betiko entziklopedia orokorrak topatu ditzakegu, baina gero eta gehiago azaltzen ari dira gai batean berezitutakoak (informatikan esaterako).

Hemen hiru besterik ez ditugu erakutsiko baina nahikoa dugu Google bilatzailean entziklopedia hitza bilatzea beste hainbat aurkitzeko.

Euskal Herriari tratamendu berezia ematen dion on-line entziklopedia Harluxet dugu. Beste edozeinek bezala gai askoren inguruko informazioa ematen du, baina bertan gehien landu dena Euskal Herriari dagokiona da. Bilaketak egiteko sistema bat du eta ausaz ere joan gaitezke bertako sarrerak ikusten.

Gaztelera aukera askoz handiagoa da, baina oso gomendagarria da Wikipedia izenekoa. Entziklopedia honen edukia librea da, hau da, mundu osoko jendea bere borondatez osatzen joan da edukia, eta egun milioi erdi artikulua ditu 50 hizkuntzetan. Bada zerbait.

Eta azkenik paperezko edizio oso ona duena eta sarean ere badagoena, Britannica. Honek bere eduki guztiak ez ditu doan ematen, baina agian norbaiti interesatzen zaio diru kopuru jakin bategatik kalitatezko infomazioa eskuratzea.

Harluxet Entziklopedia
<http://www1.euskadi.net/harluxet>

Britannica
<http://www.britannica.com>

Wikipedia
<http://es.wikipedia.org>



Azkue Autoak

Trenbide Pasealekua,4
Pab. 2

Tf. 943 861 433

AITA MARI
KAFETEGIA

Julio Beobide,15 Tel. 943 861395 Zumaiar

Arkupe



Okindegia
eta gosariak

Kale nagusia, 2 Tel. 943 861521

Inoiz ez da berandu

HERRIAN MUSIKA zaletasuna zabaldu-ta dagoela nabaria da, ikusi besterik ez dago baditugula makina bat talde, arlo eta mota guztietakoak, adin guztietarako. Dirudienez herriko Musika Eskolak ikasle ugari ditu, zorionekoa. "Gaizto" xamar jarrita, ordea, gehienak herriko gazte-txoak dira; gogoko dutelako, gurasoek bidalita, ... hori beste kupeleko ardoa da, eta beste batean mintzatuko gara horretaz. Harira itzulita, ordea, helduen zaletasunari buruz arituko gara. Kiroldegira joaten garen bezala gustuko kirola egitera, hizkuntza ezberdinak ikasten ditugun bezala, bai bidaitzeko, bai gure lantokian behar dugulako, mila arrazoi ezberdinengatik zaletasun ugari garatzen ditugun bezala, zergatik ez musika ikasi? Gaztetan baztertu genuenari heldu berriz. Azken finean, kultura garatzeko bide bat da, eta arlo honetan ez baldin bagara garatzen arima eskaseko pertsonak izango gara. Agian lotsa dugu, "nola nahastuko gara ba gure seme-alabekin?" Edo denbora faltan gabilta, "nola galduko dugu denbora barnean ditugun zaletasunak aberasten?" Edo gogorik eza. Ba ahal dakigu ba gaur egungo bizitza honetan zer dugun gogoko benetan? Ez dakigu Musika Eskolak helduentzako eskaintza berezirik baduen edo ez, bai ordu-tegi aldetik edo talde berezien sorrerengatik. Baina badakigu, egun, herrian garai batean izan genuen baino aukera eta eskaintza hobea dugu, eta etorkizunean hobea izatea komeniko litzakeela. Arrazoi ezberdinengatik utzi genuen zaletasuna berrezkuratzeko aukera ez dezagun galdu. Lotsa atean utzi dezagun eta galdetu diezaio gure buruari erronka honi aurrea egiteko gai garen, ariman dugun benetako gogoeta bat baldin bada. Ikasteko eta pertsona bezala aberasteko inoiz ez da berandu.



Sami
Musikazalea

Antxoa entsalada eta txangurro bingreta

OSAGAIK.
E150 gramo patata egosia
4 antxoa marinatu
Mota askoko letxuga

Piperradarentzat:
Piper gorri bat
2 piper berde
2 tipula
Tomate bat
Olioa

Binagretarentzat:
100 gramo txangurro, egosita eta txikituta
Olio pixkat
5 goilarakada sagardo-ozpin
Gatza

Nola egin

Piperrada egiteko, piperrak, tipula eta tomate txikitu. Gero, olio eta gatza bota, eta nahastu.
Binagreta egiteko, txangurro zatitua oliba olioarekin, sagardo-ozpinarekin eta gatzarekin nahastu.
Aro batean, borobilean marinatutako antxoak ipini. Barrualdea piperradarekin eta laminetan ebakitako patata egosiarekin bete. Gainean, mota askoko letxuga ipini, txangurro binagretarekin nahastuta.
Apaingarri bezala, plateraren alde batean piperrada pixkat jarri. On egin!!



ileapaindegia

I Z E T A

Urumea, 6 Tel. 943 862083

LEIZE
taberna

Juan Belmonte, 6

taberna
JUSTA
eguneroko bazkariak

Erribera kalea, 20

Iñaki Sorazu: "Emitza onak lortu ditugu"

Denboraldia amaitzean dagoen une honetan, Pulpo Eskubaloitako Taldeko presidente berriarekin egon gara solasean. Emitzekin oso gustora dago eta etorkizunean ere horrelaxe izango denaren itxaropena du.

Lasai harrapatu dugu Iñaki Sorazu. Jokalari bezala urte askoan aritu ondoren, bildutako esperientzia bulegoetako joan-etorrian baliatzen saiatzen da. Jokalaria zeneko maila ematen badu, Pulpok etorkizun oparoa izango du.

Lehen denboraldia duzu Pulpo Eskubaloitako Taldeko lehendakari, zer nolako esperientzia eta balorazioa egiten duzu?

Iñaki Sorazu: Iazko denboraldian jokalaria nintzen eta aurtengo denboraldiaren erdian jarri naute presidente. Balorazioa oso ona da, ia ezin hobea, izan ere talde guztiak oso emitza onak ari dira lortzen.

Aurten inoiz baino talde gehiago daude, bederatzi, liga ezberdinetan. Zailtasuna handitu al da?

Iñaki Sorazu: Esan dezakegu baietz. Baina badago beste kontu bat; aurten, lan asko egin dugu eta federazioari presio handia egin diogu infantiletan bi kategori berri ateratzeko. Azkenean lortu dugu infantilen ligaxka bat egitea, bai mutilekin eta baita neskekin ere.

Gainera, nesken senior talde bat sortu dugu, pare bat neska kanpotik etorri dira talderik gabe zeudelako. Beraz, zailtasuna handitu dela esan dezakegu, ea gehiago handitzen den.

Zer nolako denboraldi egin du gizonezkoen talde nagusiak?

Iñaki Sorazu: Denboraldi ona, nahiz eta pixkat lasaiago ibiltzea gustatuko litzaiguen, izan ere, bukaera arte borrokan ibili gara maila mantetzeko.

Taldea oso estua da, jende gutxirekin; lesioak tarteko, eta beste arazo batzuk direla eta ez direla, bukaera arte lan



"Maila polita erakutsi dugu, eta gehiago ezin da eskatu"

asko egin behar izan dugu. Gainera, oso zaila da maila honetan mantetzea, talde onak daudelako. Nik uste dut oso ondo mantendu garela, eta maila polita erakutsi dugula: gehiago ezin dugu eskatu.

Kadeteak eta gazte mailakoak Euskadiko Ligan daude, zer moduz ari dira moldatzen?

Iñaki Sorazu: Mutilak maila honetan aspalditik daude eta aurten ere mailari eustea lortu dute.

Nesken taldeak, aldiz, iaz igo ziren, beraz, hau izan da beraien lehenengo urtea, eta zoritxarrez iadanik mailaz jaitsita daude. Nahiko zaila izan da denboraldia, jende berri asko etorri delako. Esperientziarik gabe maila on batean ihardutea zaila da. Pena da, hobetu dutelako eta partiduak irabazten ari direlako, bai denboraldiko nahiko berandu da. Baina hurrengo urtean, berriz ere, igotzeko aukera izango dute, eta

igoko diren itxaropena dugu. Aurtengo esperientzarekin hurrengo urtean igotzen badira, bertan mantenduko direla ziur gaude.

Neskak gero eta gehiago animatzen dira eskubaloian, zer nolako etorkizuna ikusten diezu?

Iñaki Sorazu: Aurten bi talde berri ditugu. Alde batetik, lehen esan dudana bezala, infantilekoa (federazioarekin borrokan ibili eta gero lortutakoa) eta beste alde batetik zaharren taldea, estatu mailan dabilta jokatzeko (bigarren B mailan), eta dagoeneko mailaz igo dira (bigarren A mailara). Gogoarekin daudela ikusten zaie eta hori oso ona da.

Etorkizuna? Orain hiru talde ditugu jokatzeko ilusioarekin eta gogoarekin. Etorkizuna badutela uste dugu, hemendik zortzi urtera zer gertatuko den ez dakit, atzetik datozen neskak animatzea espero dugu; oraingoz urte batzuetarako lana eta gogoia badugu, behintzat.

Aurten Aldundiaren diru laguntzarik gabe geratu zerate. Nola egin diozute aurre galera horri?

Iñaki Sorazu: Orain arte diru apur bat ematen ziguten, kirolentzako zegoen dirua banatzen zuten. Aurten, beheko talde guztiei diru laguntza kendu eta goiko hiru taldeen artean banatu dute: Bidasoa, Arrate eta Zarautzen artean, hain zuzen.. Hau da, herriko taldeei diru laguntza kendu eta talde handiei eman, talde handi horiek indartzeko asmoz; diru gehiago izatean atzerritarrak ekartzeko aukera handiagoak dituztelako eta era honetan taldea indartzekoa ere bai.

Egia esateko, guretzako kaltegarria izan da, diru premian ibiltzen garelako. Diru laguntzak kentzen badizkigute, ba, gero eta okerrago. Beste modu batzuk aurkitzen saiatzen gara dirua lortzeko, bai herriko tabernetan, enpresetan, kartelak jartzen, zozketak egiten..., eta tristeena guretzako

jokalariei dirua eskatzea da, gogorra egiten zaigu. Ea egunen batean babesle on bat aurkitzen dugun, bitartean, tristea baldin bada ere, horrela ibili beharko dugu.

Zein izan da dirulaguntza kentzeko arrazoa?

Iñaki Sorazu: Tartean ibiltzen den jendeak arrazoi politikoak daudela esaten du. Azkenean betikoa, politikuek agintzen dute, eta beraiek erabakitzen dute batzuei diru laguntza kendu eta beste batzuei ematea. Era horretan, batzuk kaltetuta ateratzen garen bitartean, beste batzuk irabazten ateratzen dira. Betikoa.

Zumaiako herriak zer nolako jarrera du eskubaloien aurrean?

Iñaki Sorazu: Zaletasun handirik ez dagoela esan behar dut. Askotan, partiduetan ia inor ez da egoten, ez familiarik, ez lagunik..., pixkat tristea da. Nahiago genuke arraunak edo futbolak mugitzen duen jendea mugitzea. Izan ere, jendeak nahiago du tabernetan egon edo mendira joan...

Nola ikusten duzu etorkizuna?

Iñaki Sorazu: Espero dut hobetzen joatea. Aurten zuzendaritza goitik behera berritu dugu, jende gaztea sartu gara, lan egiteko gogoarekin eta intentzioarekin. Ea denon artean etorkizun on bat lortzen dugun. Gauza asko falta zaizkigu, ez bakarrik diru laguntzak, baita jendea ere: entrenatzaileak, partiduetan mahaian egoteko pertsonak, ordezkariak..., beti eskean gaude. Jende berria behar da, ez egunero egoteko, baina bai pixkat laguntzeko.



INMOBILIARIA

Amaia

Julio Beobide, 3 behea 943 86 23 01

Antonio Etxabe



Gizonezkoen erropak

Zumbillo, 4 Tel. 943 861407

ZALLA

Taberna - Erretegia

- * plater konbinatuak
- * otartekoak
- * oilasko erreak

San Pedro, 4 Tel. 943 862387



Zerbitzu Ofiziala

ZUMAI A MOTOR

Santixo auzoa, 22
 tel. 943 143 143 faxa: 943 865 161

ILEAPAINDEGIA



San Telmo, 12
 Tel. 943 860760

ITSASKI
 SUPERMERKATUA

Urumea kalea z/g
 Tel. 943 143058

Ankaluze, batelaren zain

D

uela urte batzuk Kresala nobela ospetsua irakurtzeko pare bat saio egin nituen. Baina alferrik. Hartu eta utzi, hartu eta utzi, hogeita hamaseigarren orrialdean (hirugarren edizioko alea) trabatuta geratzen nintzen, aurrera egin ezinik. Orrialde hartako pasarte batek neure onetik ateratzen ninduen eta irakurtzen jarraitzea galarazten.

Pasarteak hala zioen // dio: "Asi naiz bidean Burnietatik gora ta Askizutikan zear. Zumayako ondartzan egon bear izan det luzarotxo ibaia pasatzeko batelaren zai, baño, ala ta guztire, ordibiterdi baño lenago Iziar gañean nintzen". Baina, aurrera baino lehen, agian komeni da pasartearen ingurumaria ezagutzea.

Arranondo // Ondarroa itsasertzeko herria da. Arrantzaleak itsasoan direla, ekaitz izugarria altxatu da. Txalupa guztiek lortu dute etxeratzea, batek izan ezik. "Sardinzarrena" da agertu ez den txalupa bakarra. Herriko jendea urduri dago, eta okerrena pentsatzen. Ez da ezer gertatuko, halere, Sardinzarren potiñak Getariako portuan bilatuko baitu aterpea. Getariako alkateak Ankaluze izeneko ibiltaria bidaliko du Arranondora, txalupa han dagoela eta lasai egoteko esatera. Ankaluze goizeko ordu bietan helduko da Arranondora, eta alkatearen agindua beteko du.


Hogeita hamaseigarren orrialdeko pasarte hartara ailegatzean, idazlearen aurkako errebeldia maltzur bat sortzen zitzaidan barrenean. "Zergatik igo zen Ankaluze Askizura, eta gero handik Zumaiara jaitsi, kostaldeko errepidetik joan beharrean?", edo "Zergatik egon zen batelaren zain Santioko hondartzan, Zubi Handian pasa beharrean beste aldera?" galdetzen nion neure buruari, haserre. Erantzunik jasotzen ez nuenez, zera deliberatuko nuen, idazleak antzinako ibilbidea aukeratzean, lehengo munduaren apologia egin

nahi izan zuela; hots, kostunbrismoa nabarmendu nahi izan zuela, eta aldi berean modernitatea ukatu, eta helburu hura buruan, ez zuela erreparorik izan, Ankaluzek egindako ibilbidea denboraz kanpo kokatzeko, zegokion baino berrogeita hamar edo ehun urte lehenago jarritz.

Denborarekin, ordea, duda bat piztuko zitzaidan. "Nola liteke Txomin Agirre bezalako idazle handi batek halako hanka-sartzeak egitea?" "Zuzena eta bidezkoa al da hire haserre?" "Ez da, bada, aitzakia bat izango, besterik gabe, liburuaren irakurketa bertan behera uzteko?" eta antzeko galderak nerabilzkien gogamenean. Eta dudak ikerketara eraman ninduen.

Aurrena, nobelaren argitalpen datari erreparatuko nion: 1906. Hurrena, berriz, zera jakingo nuen, Kresalak liburu moduan plazaratu aurretik beste argitalpen bat eduki izan zuela Euskal-Erria izeneko aldizkarian. Atalka, hain zuzen ere. Euskal-Erria aldizkariak hilean hiru ale argitaratzen zituen, —hilaren 10, 20 eta 30 egunetan hain justu—, eta Kresalaren lehendabiziko hiru atalek bertan ikusi zuten argia estraineko, 1901eko abenduan. Hona zer kontatzen zion Txomin Agirrek Carmelo Echegaray bere lagun minari 1901eko abenduaren 12ko gutun batean: "He comenzado a dar luz en la Euskal-Erria una novelita de costumbres de la costa, titulada Kresala". Datu hauek guztiek nire alde jokatzeko zuten. Izan ere, Zumaiaiko argazki zaharren liburua eskuetan, mende hasierakoetan begiratu, eta hantxe ikusten nituen kostaldeko errepedea eta Zubi Handia. Bide onetik abiatua nintzelako susmoa nuen.

Jarraian, ordea, beste galdera-zalantza bat sortuko zitzaidan: "Atalak badakigu noiz argitaratu ziren, baina idazleak noiz idatzi zituen, zehazki?". Txomin Agirreraren biografiara jo behar izan nuen erantzun bila, eta bertan honakoa irakurri nuen: "Domingo de Aguirre hubo de comenzar a escribir Kresala entre 1898 y 1901". Datu





honek ere nire alde jokutzen zuen. Hala ere, biografian aurkitu nuen beste xehetasun batek kezkatu egin ninduen: "Lo cierto es que desde mediados de mayo de 1889, Aguirre ya está de capellán en Zumaya". Hots, nahiz eta Kresala idatzi zueneko uneari buruz nik arrazoia eduki, denboran atzerago jo beharra nuen neure ikerketan, zeren posible baitzen Txomin Agirrek errepide eta zubirik gabeko Zumaia bat ezagutu izana. Ikerlarietara jolasten ari nintzela pentsatzeak amorrazioa ematen zidan.

Herriaren historiako liburu ofizialera jo nuen oraingoan. "Getaria eta Zumaia bitarteko kostako errepidea egiteko lanek 1882 urtean hasi eta bi urte iraun zuten. 1885eko urtarrilean Aldundiak errepide berria behin-behinerako zabaldu zuen eta urtebete beranduago behin-betiko inauguratuta geratu zen" irakurri nuen bertan. Pasarte honek guztiz poztu ninduen. Eta ondoren irakurri nuenak ere bai: "Urola ibaiaren gaineko Burdinazko Zubia 1880ko hamarkadaren erdi aldera eraiki zen. Eraikuntza horrek ikusmin handia eragin zuen zumaiarren artean, jakina baitzen Urola ibaiaren nabigagarritasuna etenda gera zitekeela". Ziur nengoen norgehiagoka hartatik irabazle aterako nintzela. Bai, nik arrazoia nuen: Txomin Agirrek ez zuen errepide eta zubirik gabeko Zumaia ezagutu. Hala ere, errepide eta zubirik gabeko Zumaia bat margotu zuen. Zergatik? Ideologiagatik. Bai, Txomin Agirre apaiz moralista-integrista bat zen, beti atzera begira, eta joandako garai guztiak hobeak direla pentsatzen bizi diren horietakoa. Baina nik haren azpijokoa agerian uztea lortuko nuen.

Ez dakit zenbat egun emango nituen hodei zoriontsu hartan. Kontua da halako batean, oharkabean, berriz hartu nuela Kresala eskuartean eta berriz ekin niola irakurketari. Oraingoan, ordea, nobelako giroa eta Arranondoko herria oso-oso antzinakoak iruditu zitzaizkidan. Horretan pentsatzen ari nintzela, Txomin Agirreraren biografia erreparatu nuen: "1864an jaio zen Ondarroan. Hamasei-hamazazpi urterekin apaiz-mutil Bilbora. Hogeita bost bat urterekin apaiz osoa Zumaian. Kresala idazten hasi zenean, hamar bat urte

zeraman Zumaian bizitzen, eta hamazortzi inguru Ondarroatik kanpo".

"Hamazortzi urte Ondarroatik kanpo" errepikatu nuen neure artean. Ondoren, neure buruarekin hizketan hasi nintzen: —Jar hadi une batez Txomin Agirreraren lekuan, eta pentsa ezak Arranondo // Ondarroan errotutako nobela bat idatzi nahi duala. Zein garaitan kokatuko huke?

Galdera hura birritan entzun nuen neure baitan:

—Txomin Agirre haiz, eta Ondarroan gertatzen den nobela bat idatzi nahi duk. Zein garaitan kokatuko huke?

—Argi zagok. Haurtzaroan edo mutikoxkorretan.

—Zergatik?

—Bada, sasoi horretan bizi izan zelako bertan.

—Ondo. Eta zein urte-bitarte izango huke hori Txomin Agirreraren biografian?

—Bada, 1870-80 hamarkada, adibidez.

Momentu batez isilik eta pentsakor geratu banintzen ere, ostera ekin nion bakarrizketari:

—Oker habil. Txoroxa haiz. Hire zalantzekin ez duk denbora alferrikaldu besterik egiten. Zer pentsatzen huen, Txomin Agirreraren lepotik barre egitea? Leku ederrean hago. Nobela ziztrin bat irakurtzeko hainbeste aitzakia! Hurrengorako ikasiko duk zuhurragoa izaten!

Bai, inozo hutsa nintzen. Kostata, baina azkenean askatua nuen korapiloa. Egia zen Txomin Agirre 1900 inguruan hasi zela Kresala idazten, eta egia zen Txomin Agirrek beti ezagutu zituela kostaldeko errepidea eta Zubi Handia Zumaian. Baina egia zen halaber, idazleak 1870 urte inguruan kokatu baldin bazuen istorioa, Ankaluzek ez zuela Zumaia hondartzan batelaren zain egotea beste erremediorik izan. Dezepzionaturik nengoen neure buruarekin. Gauza batean bakarrik asmatu nuela neritron: ikerlarietara jolasten ari nintzela pentsatu nuenean, alegia.

Pedro Alberdi



Bizitzari gorazarrea

BATZUEK EZ ZUTEN ikusterik izan bere garaian *El declive del imperio americano* eta agian pentsatuko dute *Las invasiones bárbaras* arrasto beretik doala, baina jakin bezate Denys Arcand-en film bikain hau independentea dela. Egia da, bai, duela hamazazpi urte diskurtso askatzailea zabaldu zuen lagun-taldea berriz ere elkartu dela filmean, baina presentzia hori gehiago da emoziozko aitzakia, gertaeren eragile baino.

Arcand-en aitzakia erraza bezain konplexua da: Rémy Girard-ek jokatzen duen pertsonaia laster hil egingo da eta horregatik lehengo konplizeak elkartu egingo dira. Idea horretan oinarrituta, zuzendariak bizitzari eta adiskidetasunari gorazarre bikaina egingo die *Las invasiones bárbaras*-en, drama eta komedia elkarrekin uztartuta. Belaunaldi baten argazki dotorea da, iragana eta oraina eszenografia egokian bateratuta, eta pertsonaiek aukera daukate astiro-

astiro itzaltzen ari den bizitzaren balantzea egiteko.

Benetan nabarmentzekoa eta aparta da Rémy Girard-ek jokatzen duen papera, hiltorian ere menderaezin, eta bizitza-leherketa baten bidez ezkutatuko du zenbaterainoko beldurra ematen dion azken agurrak, hain bete-betean ezagutu eta bizi zuen guztiari agur esateak.



Las invasiones bárbaras

2003, Kanada-Frantzia

Zuzendaria:

Denys Arcand

Aktoreak: Rémy Girard,

Dorothee Berryman,

Stéphane Rousseau,

Marie-Josée Croze

Apirilak 15,

osteguna, 22:15ean

Aita Mari zinean



- Arrainak eta haragiak aukeran

- Eguneko menua

- Jangela klimatizatua

Juaristi
JATETXEA

Basadi auzategia, 10 Tel. 943 861853

Z
Zumaia Hotela



Alai Auzategia
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
TEL: 943 14 34 41
FAXA: 943 86 07 64

SANTELMOAK 2004

OSTIRALA 16

- 16tik 18ra Kirol Portuan, Zumaiaiko Marina Elkano-V.Azoka Nautikoa, eta Aintzinako Gauzen Azoka.
- 19.00etan Aita Mari antzokian, San Pedro Txiki eta Txikienak eta Zestoako Amalda Txiki abesbatzak eskainitako jaialdia
- 21.00etan San Telmo kalekoen lagunarteko afaria.
- 22.30etan Aita Mari aretoan, Santelmotako bertso jaialdia. Bertsolariak: Andoni Egaña, Sebastian Lizaso, Joxe Agirre, Jon Maia, Unai Iturriaga, Jon Martin, eta Josu Goikoetxea gai-jartzailea.

LARUNBATA 17

- 9.00etan hasita Itzurun hondartzan, Zumaiaiko V. Surf eta Paipo txapelketa
- 09.00etatik 12.00etara Herri txikiz mailako Arrantza Lehiaketa, Talaipetik Paol muturrera bitartean. (Heriotzarik gabeko saioa)
- 11.00etan Udal Txistulari Bandaren kalejira.
- 11.45etan San Telmo Ermitaren parean, Telmo izeneko herriko seme eta kanpotik hurbildutakoen topaketa; jarraian bazkaria eta egunpasa.
- 12.00etan San Telmo ermita bertan, Txupinazoa jaiel hasiera emanaz.
- Jarraian Musika Eskolako Trikitilariak lagunduta, Jaitsiera.
- Ondoren San Telmo kalean, Itxas Gain elkartearen parean,

- Hamaiketako. Tarte alaituz, Bertso Eskolako ikasleen eta Trikitilarien saioak.
- 12.30etan Paol muturrean, Santelmotako II. Bela Saria.
- Ordu berean gazte koadrilen kalejira herrian zehar, Mulambo perkusio taldeak lagunduta.
- 13.00etan Kofradiako plazatxoan, herriko ikastetxeetako Dantza Eskoletako haurren esku, Euskal Dantza ikuskizuna.
- 14.30etan Frontoi Txikian, Bazkari herrikoa.
- Bazkalostean Koadrilen arteko jolasak eta santelmotako Postre Lehiaketa.
- 16.30etatik aurrera Gaztetxolan, DJ jaialdia: dantzaldia eta diskoteka.
- 18.00etan Eusebio Gurrutxaga plazan hasita, Gazteleku txarangaren kalejira.
- Ordu berean Xabier Aburruzzagaren trikitilarien kalejira.
- 22.00etan Odieta pelotalekuan, Xixtera partiduak, XV. San Telmo Sariaren finalerdiak.
- 23.00etan Eusebio Gurrutxaga plazan, Joselu Anaiak taldearekin dantzaldia.
- 24.00etan Erribera kalean, Deabru Beltzak taldearen "suzko tanborrak" ikuskizuna.

IGANDEA 18

- 10.00etatik 14.00etara Kirol Portuan, "Bela bataioak" 8 urtetik 14 urtera bitartean.
- 11.00etatik 13.00etara IX. santelmotako Scalextric
- txapelketa Odietan
- 11.30etan Kofradian, Arbustain Motorzale elkarteak antolatuta, Udalarren eta Kutxaren babesean, Hamaiketako herriko itsasgizon zaharrentzat.
- Ordu berean TRIKUAK txarangarekin kalejirak herriko kaleetan.
- 12.00etan Haurren Danborrada
- 16.00etatik 19.00etara beste Scalextric saio batzuk.
- Ordu berean Kirol Portuan, "Bela bataioak" 8 urtetik 14 urtera bitartean.
- 17.00etan Buruhaundi eta Erraldioen kalejira.
- 18.00etan Eusebio Gurrutxaga plazan haur antzerkia, GARI, MONTXO ETA JOSELONTXO pailazoekin.
- 18.30etan TRIKUAK txarangaren "BONEY M" ikuskizuna kaleetan zehar.
- 22.30etan Danborrada Berezia



- Gauerdian Kofradian Bandera Igoera, ANGEL OSA arrantzale izanaren esku. Bertan Arbustain Motor elkarteak urtearen oroimenez bere txapel oroigarria oparitu dio.
- 01.00etan Eusebio Gurrutxaga plazan, dantzaldia EGAN taldearekin.

ASTELEHENA 19

SAN TELMO EGUNA

- 08.00etan Meza eta ondoren Jaunarekin Prozesioa eta Gaixoan Jaunartzea.
- 10.15etan Ohiturazko Prozesioa San Telmoren ermitara.
- 10.30etan Meza Nagusia, itsasoaren aurrean oitotza eta Parrokiera itzulera. San Telmoren erlikia gurtzea.
- Ondoren, agintari eta gonbidatuak hamaiketako bat eskainiko zaie Kofradian.

LASER BIDEZKO DEPILAZIOAN ESPEZIALISTAK



Gorputzeko edozein ataleko ileak kentzeko sistema berriak aurkezten ditu.

- Argiaren bitartez egindako depilazioa
- Luz pulsada (fotodepilazioa)
- Laser ND-YAG (40J.)

Bien arteko konbinaketarekin tratamenduetan azkartasun eta eraginkortasun handiagoa lortzen da.

BANAKAKO AURREKONTUAK

Bonifacio Etxegarai plazakoe z/g. Tel: 943 861 322



Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

Zuloaga plaza, 1
Tel. 943862309

12.00etan INCANSABLES txarangaren kalejirak.

17.00etan haur festa Eusebio Gurrutxaga plazan GORRITI ETA BERE ANIMALIAK.

17.30etan Odieta pelotalekuan, Profesional Mailako Eskuzko Pelota Partidua:

TITIN III-APEZTEGIA // MTZ DE IRUJO-LASA III

18.00etan INCANSABLES txarangaren ekitaldia plazan, eta jarraian herriko kaleetan zehar.

19.00etan Kofradiako plazaratxoan, erromeria LUHARTZ taldearekin.

22.30etan LUHARTZ taldearen beste saio bat.

ASTEARTEA 20

08.00etan Hildakoen aldeko meza.

18.00etan Aita Marin, haurrentzat bertso ikuskizuna "Inaxitoren ametsak".

OSTIRALA 23

21.00etan Anade elkartearen, Bertso Afaria, eta jarraian, ZUMAIAKO VI. BERTSOLARI TXAPELKETA.

22.30etan Odieta pelotalekuan, profesional mailako partiduak, palaz eta xixeraz.

23.00etan Kontzertua: Itaca eta Berri Txarrak taldeekin.

LARUNBATA 24

10.30etan Itzurun hondartzan, Hondartzako XVIII. Futbol Txapelketaren azken partiduak.

11.30etan Haur Jolasak Larretxoko plazaratxoan.

11.30etan Eusebio Gurrutxaga plazan, V. Olarrozopa eta Rana Txapelketak

Ekitaldia alaituz Olarte Anaiak trikitilarien saioa.

12.00etan Beheko Plaza Abesbatza

eta Trintxerpeko Illunbe abesbatzaren ekitaldiak Eribera kalean zehar.

Ordu berean TRIKITXAS bikotearen doinuak kaleetan zehar.

17.00etan Eusebio Gurrutxaga plazan, haur berbena TRIKIMAILU BERRIA.

Arratsaldeaz Gaztetxolan, Gazteen Santelmo jaietako argazki erakusketa eta txapelketa.

18.00etan Fanfarre topaketa: SAMA SIKU eta BIZNIETOS DE CELEDÓN fanfarreak arituko dira herriko kaleetan zehar.

Ordu berean TRIKITXAS bikotearen doinuak kaleetan zehar.

22.00etan Odieta pilotalekuan, xixtera partiduak, XV. San Telmo Sariko azken partiduak.

22.00etatik 01.30etara Alondegian, Santelmotako Diskoteka (12-16 urte bitarteko gaztetxoentzat).

23.00etan SAMA SIKU eta

BIZNIETOS DE CELEDON Fanfarreen ekitaldia Eusebio Gurrutxaga plazan.

Jarraian fanfarreen kalejirak herriko kaleetan zehar.

IGANDEA 25

12.00etan SUGARRI txarangaren kalejira.

12.30etan Odieta pilotalekuan Urrezko Aizkolaria 2004 Sariaren barne: Nazabal eta Olasagasti aizkolarien erronka.

18.30etan Trainerillen estropada, XXIII. San Telmo Saria.

Ordu berean SUGARRI txarangaren beste ekitaldi bat.

19.00etan Kofradia, LEIHOAK taldearekin, erromeria.

22.30etan LEIHOAK taldearen beste saio bat.

Gauerdian Banderaren jaitsiera eta santelmoei agurra.

TOMIAS TABERNA

- APARTAMENTUAK -

- menuak
- plater konbinatuak
- pintxoak eta ogitartekoak

E. Gurrutxaga plaza

943 86 19 16



AIZPURUA

LIBRERÍA

Alta-Mari auzategia, 17
Tel. 943 861569



Mota guztietako altzariak

Xanti Osa

Amia plaza, 7
tailerra: 943 860914
denda: 943 862385



MENDI - ONDO C.B.

ELEKTRIZITATEA

Urola Plaza, 21

Tel. 943860074 - 943861569



ARROPADENDA

Itzurun, 1 Tel. 943 143224



METRO taberna

ogitartekoak
pintxoak

Upela plaza, 7
tel: 943 862620

Hortz klinika

Mozès Hiriart eta SOULIER
Odontologoak

- * Odontologia orokorra
- * Periodontzia
- * Endodontzia
- * Inplantologia
- * Ahoko prebentzio eta errehabilitazioa
- * Protesia
- * Hortz estetika

Inplantologia: teknika berrienei esker, implanteak jar ditzakegu, nahiz hezur gutxi izan.

Larunbatetan egun osoa zabalik

Maria Etxetxiki kalea, 1 behea. • ZARAUTZ • tfnoa: 943-130278

ile-apaindegia



Solarium

ETXEZARRETA, 9
TEL: 943 86 10 21



Alai auzategia, 12 Tel: 943 86 02 58 ZUMAIA

Itzurun zuhaitz bidea, 1 Tel: 943 86 24 30 ZUMAIA



- Txarkuteria bikaina
- Inguruko baserrietako haragirik onena
- Geuk aurrez prestatutako jaki goxoak



ZUMAIA

Trenbide Pasealekua, 4 - Pab. 2
Tf.: 943 861 433

